



ESTATUTU SOZIALAK

**LUIS ELEIZALDE IKASTOLA,
KOOP.ELK.**

I. KAPITULUA. IZENDAPENA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA, LURRALDE EREMUA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA

1. ARTIKULUA. IZENDAPENA

LUIS ELEIZALDE IKASTOLA, KOOP.ELK. izendapenaren bidez, Bermeen irakaskuntza integraleko kooperatiba bat eratu da. Kooperatibak Eusko Legebiltzarrak onetsitako lege hauetan ezarritakoa betetzen du: Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak zehaztutako printzipioak eta xedapenak, eta ekainaren 29ko 1/2000 Legearen eta abenduaren 1eko 8/2006 Legearen bidez aldatutakoak, bai eta indarrean dauden gainerako lege aginduak eta estatutu hauek ere.

2. ARTIKULUA. XEDEA

Erakunde honen xedea da bazkideen seme-alabei eta tutoretzapekoei euskarazko hezkuntza eta irakaskuntza eskaintzea eta sustatzea modu kooperatiboan haur hezkuntzatik goi ikasketetan hasi arte; hala, erakunde eta organismo publiko eta pribatuekin jardungo du lankidetzan, aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzeko eta kulturaren, prestakuntza tekniko eta artistikoaren eta kirol jardunaren onuretan parte hartzeko.

Era berean, eskolaz kanpoko jarduerak eta horiei lotutakoak egin eta eskola zerbitzu osagarriak eman ahalko ditu, bai eta irakaskuntza arloko jarduerak errazten dituzten

gainerakoak ere.

3. ARTIKULUA. EGOITZA SOZIALA

Egoitza soziala Bermeon dago (48370 Bizkaia), Arene auzoko 6. zenbakian; egoitza udalerrian bertan tokiz aldatu ahalko da, Artezkaritza Kontseiluak hala adostuz gero.

4. ARTIKULUA. IRAUNALDIA

Sozietatearen iraunaldia mugagabea da.

5. ARTIKULUA. LURRALDE EREMUA

Sozietate honen jarduketaren lurralde eremua BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA da, betiere kontuan hartuta eremu horrek men egiten diela bazkideekin kooperatibizatutako sozietate eragiketei eta ez Kooperatibak garatutako bestelako jardueri.

II. KAPITULUA. BAZKIDEAK

1. SEKZIOA. BAZKIDEEN ONARPENA

6. ARTIKULUA. BAZKIDEAK IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK

BAT.- Zuzeneko bazkide onuradunak.

- a) Kooperatiba honetan matrikulatuta dauden seme-alaben gurasoak edo haurren ordezkariak eta tutoreak.
- b) Adin nagusikoak diren ikasleak, Kooperatibak zehazten dituen ikastaro eta zirkunstantzietan.

BI.- Bazkide langileak.

- a) Kooperatiba honetan jarduteko eta lana garatzeko gaitasuna duten pertsonak, estatutu hauek onartzean beren gain hartutako eskubide eta betebeharren jakinaren gainean egonik; horiek guztiak leialtasunaz eta eraginkortasunaz betetzeko konpromisoa hartzen dute.
- b) Bazkide langilearen izaera galtzeak berekin dakar kooperatibako lan prestazioa bertan behera utzi beharra.

Bazkide mota horiek zuzeneko bazkide onuradunen izaera ere eskuratu ahalko dute

haien seme-alabek kooperatibak ematen dituen zerbitzuak erabiltzen badituzte, behin ondorio horietarako ezarritako gutxieneko nahitaezko ekarkina ordaindu eta gero.

HIRU.- Bazkide laguntzaileak.

Kooperatibaren jardueran zuzenean parte hartzen ez duten baina xede soziala lortzen lagun dezaketen eta gainerako bazkideekiko interes erkidea egiaztatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak.

Administratzaileen erabakiek onartutakoen lankidetza baldintzak ez ezik haien eskubide eta betebeharrak zehatzak ere ezarriko dituzte.

Batzar Nagusian bazkide laguntzaileen botoen batuketak ezingo du boto sozialaren %10 baino gehiago ordezkatu.

LAU.- Bazkide ez-aktiboak edo ez-erabiltzaileak.

Arrazoi justifikatu bidez zuzeneko onuradunak eta bazkide langileak izateari uzten dioten eta kooperatiban parte hartu nahi duten bazkideek bazkide ez-aktiboen edo ez-erabiltzaileen izaera eskuratuko dute, kontrakoa adierazten duen berariazko eskaera egiten ez badute.

Halako bazkideek estatutu hauetan ezarritako eskubide eta betebeharrak izango dituzte; hala ere, haien botoen batuketa ezingo da boto sozialaren %10etik gorakoa izan.

7. ARTIKULUA. ONARTUAK IZATEKO BALDINTZAK

BAT.- Zuzeneko bazkide onuradunak onartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako eskaera bidez onarpena eskatzea, estatutu hauen arabera kooperatiban parte hartzeko eskubidea ematen dion egoera justifikatuz.
- b) Onarpen eskaeran ontzat ematea estatutu hauetan eta indarreko gainerako erabakietan ezarritako ekarkinei eta erantzukizun osagarriari buruzko konpromisoak.

BI.- Bazkide langile gisa onartua izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) 16 urtetik gorakoa izatea.
- b) Ikasturte baten baliokidea izango den gehieneko probaldia gainditzea.

Probaldi horretan:

- Kooperatibak eta hautagaiak beren arteko erlazioa bertan behera utzi ahalko dute, alde bakar batek hala erabakita.
- Ezingo da hautatua izan sozietatearen organoetako karguetarako.
- Ez da beharturik egongo ezta ahaldundurik ere sarrera kuotaren ekarkina egitera edo ordaintzera.
- Ez die eragingo probaldian zehar kooperatiban izandako galeren egozketak eta ez dute itzulketa kooperatiborako eskubiderik izango; hori ez da oztopo izango emaitza positiboetatik soldatapekoei onartutako kopuru bera jasotzeko eskubidea izan dezaten.

8. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO ERABAKIAK

BAT.- Bazkideak onartzeko erabakia Artezkaritza Kontseiluari dagokio.

BI.- Bazkideak onartzeko erabakiak mugatu ahalko dira arrazoitutako bidezko zioak direla eta:

- a) Kooperatibak zerbitzua emateko gaitasuna dela eta.
- b) Batzar Nagusian bazkide moten arteko proportzio egokiari eusteko premia dela eta.
- c) Kooperatibaren antolakuntza eta funtzionamenduari begira behar diren bazkide berrien premia objektiboak direla eta.
- d) Probaldiaren ondorioz sortu eta zuzendaritzak egindako txostenak direla eta.

Onarpenaren baiespena edo ezespina ezingo da izan diskriminazio arbitrarioa edo ez-bidezkoa dakarten arrazoiengatik, betiere xede sozialari dagokionez.

9. ARTIKULUA. ONARPEN PROZEDURA

BAT.- Bazkide langileei dagokien onarpen eskaera Artezkaritza Kontseiluari aurkeztu beharko zaio gutxienez probaldia amaitu baino 30 egun lehenago; eskaerari uko eginez gero, Artezkaritza Kontseiluak modu arrazoituan ebatziko du 60 egunetik gorakoa izango ez den epean, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.

BI.- Epe hori igarotzen bada berariazko ebazpenik eman gabe, onarpena ontzat eman dela ulertuko da.

10. ARTIKULUA. ONARPENA AURKARATZEA

BAT.- Eskatzaileak ukapen erabakia aurkaratu ahalko du Batzar Nagusiaren aurrean; hori egiteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, baliozkotasunaz

egindako jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita.

BI.- Onarpen erabakia aurkaratu ahalko da organo sozial horren aurrean, gutxienez bazkideen %20k hala eskatzen badute; hori egiteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Bazkide langile bati dagokionean, onarpen erabakia aurkaratu ahalko da, gutxienez bazkide langileen %20k hala eskatzen badute.

HIRU.- Aurreko paragrafoek aipatutako errekurtsoen inguruan ebatziko da egingo den lehenengo Batzar Nagusian.

II. SEKZIOA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

11. ARTIKULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA

Eskubide eta betebehar sozialak eragina izaten hasiko dira onarpen erabakia hartzen den egunetik aurrera.

Erabakia aurkaratzen bada, eten egingo da, harik eta organo eskudunak horren inguruan ebatzi arte.

12. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNAK

BAT.- Bazkideek kooperatibaren eragiketa sozialetan duten erantzukizun ekonomikoa izenpetutako kapital sozialaren ekarkinen zenbatekora mugatzen da.

BI.- Behin ordaindu beharreko ekarkinen zenbatekoa finkatuta baja hartzen duen bazkideak ez du inolako erantzukizunik izango kooperatibak haren baja izan aurretik eskuratutako zorreatatik.

13. ARTIKULUA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK

Bazkideek honako betebeharrak dituzte:

- a) Batzar Nagusiaren bileretara eta deitutako gainerako organoenetara bertaratzeko.
- b) Hautatuak izan diren karguak onartzeko, salbuetsiak izateko bidezko arrazoirik ez badago.
- c) Bazkidearen izaeraren ondorioz sortzen diren betebeharrak ekonomikoak onartzeko.
Bazkide laguntzaileek zuzeneko onuradun edo langile gisa parte hartzeko kooperatibaren xede diren hezkuntza jardueretan.
- e) Giro sozial egokia eta elkarbizitza begirunetsua lortzen laguntzeko kooperatibaren barnean.
- f) Kooperatibaren berezko xedeekin lehiakorra ez den jarduerarik ez egiteko eta lankidetzan ez jarduteko halakoak egiten dituztenekin, administratzaileek beren-beregi baimentzen dituztenean izan ezik.
- g) Kooperatibaren jardueren eta datuen gaineko sekretuari eusteko, baldin eta horien berri emateak kalterik eragin ahal badie interes sozialei.
- h) Lege eta estatutuen arauen ondorioz sortzen diren gainerako betebeharrak eta kooperatibaren organoek baliozkotasunaz hartutako erabakien ondoriozkoak.

BI.- Bazkide guztientzat berdina izango diren betebeharrak sozial hauek bete beharko dira, legeriak eta estatutu hauek ezarritakoarekin eta kooperatibaren organoek baliozkotasunaz hartutako erabakiekin bat etorritik.

14. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

BAT.- Bazkideek honako eskubideak dituzte:

- a) Kooperatibaren organoetako karguetarako hautatzeko eta hautatuak izateko.
- b) Proposamenak egiteko eta hizpidearekin eta hautespidearekin parte hartzeko Batzar Nagusiaren eta gainerako organoen erabaki guztietan.
- c) Kooperatibaren jardueretan eta zerbitzuetan parte hartzeko.
- d) Eskubideak eta betebeharrak betetzeko beharrezko informazioa jasotzeko.
- e) Kapital sozialari egindako ekarkinen eguneraketa eta itzulketa eskatzeko, hala badagokio.
- f) Itzulketa kooperatiborako, hala badagokio.
- g) Legeriak eta estatutu hauek ezarritako arauak darizkien bestelakoak.
- h) Informazioa exijitzeko hurrengo artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

BI.- Bazkide guztientzat berdina izango diren eskubide sozial hauek bete beharko dira, legeriak eta estatutu hauek ezarritakoarekin eta kooperatibaren organoek baliozkotasunaz hartutako erabakiekin bat etorritik.

15. ARTIKULUA. INFORMAZIOERAKO ESKUBIDEA

BAT.- Bazkideek informaziorako eskubidea bete ahalko dute legeriak, estatutuek edota Batzar Nagusiaren erabakiek ezarritakoaren arabera; izan ere, akordio horiek egokitzat jotzen dituzten bideak ezarri ahalko dituzte, bazkideen eskubide hori errazteko eta eraginkor bihurtzeko.

BI.- Bazkide guztiek honako eskubideak dituzte:

- a) Kooperatibaren estatutu sozialen kopia eta, hala badagokio, barne araubidearen arautegiarena eskatzeko.
- b) Kooperatibaren bazkideen erregistro liburua eta Batzar Nagusiaren akta liburua aztertzeko eta, aldez aurretik arrazoitutako eskaera egonik, aktaren kopia erkatua eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiena eskuratzeko, bai eta bazkideen erregistro liburuko inskripzioen egiaztagiria ere.
- c) Administrazioaileen erabakien kopia erkatua eskatzeko, akordioek zuzenean eragiten badiete.
- d) Administrazioaileek kooperatibaren egoera ekonomikoaren berri emateko, gehienez ere eskaera egin eta hilabeteko epean.

HIRU.- Bazkideek administrazioaileei idatziz eskatu ahalko dizkiete kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen alderdiei buruz beharrezkotzat jotzen dituzten argibideak edo txostenak; eskaera horiei lehenengo Batzar Nagusian erantzun beharko zaie, idatzia aurkeztu eta hamabost eguneko epe barruan.

LAU.- Ekitaldiko kontuen edo proposamen ekonomikoen gainean eztabaidatu behar den Batzar Nagusian bazkideek ahoz eskatu ahalko dituzte gai horiei buruzko azalpen edo argibideak; gauzak horrela, kontuak islatzen dituzten agiriak jendaurrean jarriko dira kooperatibaren egoitza sozialean, bazkideek deialdiaren epean zehar aztertzeko aukera izan dezaten.

Epe berean, bazkideek Zaintza Batzordearen kudeaketa txostena aztertu ahalko dute egoitza sozialean.

Epe horretan bazkideek idatziz eskatu ahalko dituzte dokumentazio ekonomiko horri dagozkion azalpen eta argibideak, gutxienez Batzarra izan baino bost egun lehenago, Batzarrean bertan erantzunda izan daitezen.

BOST.- Aurreko lehenengo zenbakian ezarritako eskubideari kalterik egin gabe, boto guztien %10 ordezkatzen dituzten bazkideek edozein momentutan eskatu ahalko dute idatziz beharrezkotzat jotzen duten informazioa. Administrazioaileek idatziz emango diete eskatutako informazioa, hogeita hamar baliodunetik gorakoa izango ez den epearen barruan.

16. ARTIKULUA. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEAREN MUGAK ETA BERMEAK

BAT.- Administratzaileek eskatutako informazioari uko egin diezaiokete, eskaera ausarkeriazkoa edo oztopatzailea bada edo informazio hori emateak arrisku larrian jartzen baditu kooperatibaren bidezko interesak. Nolanahi ere, salbuespen hori ez da bidezkoa izango, baldin eta ukatutako informazioa Batzar Nagusiaren egintzan eman behar bada eta informazio eskaera babesten dutenak Batzarrean edota ordezkatura dauden botoen erdia baino gehiago badira eta, gainerako kasuetan, Batzarrak halaxe erabakitzen badu informazio eskatzaileek jarritako errekursoaren ondorioz.

Ukapena aurkaratu ahalko da Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak bere 49. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

BI.- Zehatzago, Zaintza Batzordeari eta egingo den lehenengo Batzarrari jakinarazi beharko zaie berehala zeintzuk diren kooperatibak aurrera eraman dituen kudeaketak eta prozedurak, baldin eta erakundearen desegitearekin, kooperatibaren hezkuntza jardueraren etenarekin edota kooperatibak hezkuntza titularitatea edo bere ondarea erakunde publikoei edo pribatuei lagatzeko prozedurarekin zerikusia badute.

III. SEKZIOA. BAJAREN ARRAZIOIAK ETA ONDORIOAK

17. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA

BAT.- Bazkideek kooperatiban borondatezko baja hartu ahalko dute edozein momentutan; horretarako, administratzaileei aldeztu aurretik jakinarazi beharko diete idatziz, bi hilabete lehenago, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Hala ere, Artezkaritza Kontseiluak hala adierazita, bazkide langileari eskatu ahalko zaio kooperatiban jarraitzeko ikasturtea amaitu arte.

BI.- Aldeztu aurretik abisatzeko epea bete ezean edo beren-beregi eskatutako gutxieneko jarraipen epeak errespetatu ezean, bajak ez-justifikatuz hartuko dira, kooperatibaren administratzaileek, kasuaren zirkunstantziei men eginez, kontrakoa erabakitzen dutenean izan ezik. Hori ez da oztopo izango bazkideari jarduerak eta zerbitzu kooperatiboak betetzea exijitzeko (une horretara arte beharturik zegoen bezala) eta gaitz-kalteak ordaintzea eskatzeko.

HIRU.- Borondatezko baja ez da justifikaturik egongo, bazkidea bestelako jarduera lehiakorrek egitera badoa beste kooperatiba batera.

LAU.- Kooperatibak beste batekin bat egin, zatitu, eraldatu, xede sozialean funtsezko aldaketa izan edo kapitalari nahitaez egin beharreko ekarkin berriak eskatuz gero, erabaki mota horren kontra bozkatu duen edo erabakia hartutako Batzar Nagusira bertaratu ez baina horrekin ez datorrela bat adierazi duen bazkidearen baja justifikatua izango da.

18. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN NAHITAEZKO BAJA

BAT.- Nahitaezko baja izango da estatutu hauetan bazkidea izateko exijitutako baldintzaren bat galtzen duena.

Administratzaileek erabakiko dute nahitaezko baja, behin interesdunari ofizioz entzunaldia emanda edo beste bazkide batek edo interesdunak berak hala eskatuta.

BI.- Administratzaileen erabakia exekutiboa izango da Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten denetik edo errekurtsoa jartzeko epea igarota.

Erabakia exekutiboa ez den bitartean, bazkideak Batzar Nagusian bozkatzeko eskubideari eutsiko dio.

HIRU.- Nahitaezko baja justifikatua izango da honako kasu hauetan: bazkide izateko baldintzak betetzeari uztea ez denean gertatu bazkideak kooperatibarekin dituen betebeharrak betetzeari nahita utzi diolako edo nahitaezko bajaren bidez bidegabeko onura lortu nahi duelako.

LAU.- Errektoreek kalifikazioari edo efektuei buruz hartutako erabakiarekin bat ez datozen bazkideek Batzar Nagusiaren aurrean errekurritu ahalko dute hurrengo artikulua **BIGARREN** eta **LAUGARREN** idatz-zatiek ezarritakoari jarraituz.

19. ARTIKULUA. KANPORAKETA

BAT.- Administratzaileek kanporaketa erabaki ahalko dute estatutu hauetan ezarritako oso falta larriagatik, betiere horretarako izapidetuko den espedientearen emaitza kontuan harturik eta behin interesdunari entzunaldia eman ondoren.

BI.- Bazkideak kanporatua edo egotzia izateko erabakiaren kontra errekurritu ahalko du Batzar Nagusiaren aurrean, erabakia jakinarazi eta 30 eguneko epearen barruan.

Batzar Nagusiar aurkeztutako errekurtsoa deitutako lehenengo bilerako gai zerrendako puntu gisa jaso behar da eta bozketa sekretu bidez ebatziko da, interesdunari alde zuzenetik entzunaldia emanda.

HIRU.- Kanporaketa erabakia exekutiboa izango da Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten denetik edo haren aurrean errekurtsioa jartzeko epea igarota.

LAU.- Batzar Nagusiak kanporatzeko erabakia berresten duenean, erabaki horren aurka egin ahalko da, jakinarazten denetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 39. artikuluan xedatutako prozesu bidearen bitartez.

IV. SEKZIOA. DIZIPLINA SOZIALEKO ARAUBIDEA

20. ARTIKULUA. BAZKIDEEN FALTA MOTAK

BAT.- Erantzukizuneko giro sozial egokia bermatzeko eta bazkideen arteko elkarbizitza nahiz kooperatibaren kudeaketa ekonomikoa inola ere ez oztopatzeko, hurrengo artikuluetan diziplina sozialeko araubidea garatzen da.

Bazkide langilearen jarduera profesionalaren prestazioari darizkion faltengatiko diziplina araubidea Kooperatibaren Barne Araubidearen Arautegian garatuko da.

BI.- Haien inportantzia, garrantzia edo nahitasuna kontuan hartuz, bazkideek egindako falta sozialak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

a) Honako falta sozial hauek arinak izango dira:

- Kooperatibaren ordena eta garapen egokiari begira ezarritako arauak ez betetzea.
- Ezjakintasun barkaezinagatik estatutuen eta arautegien manuak eta funtzionamendu arauak ez betetzea, behin batean gutxienez.
- Arrazoi justifikaturik gabe egintza sozialetara ez bertaratzea eta, bereziki, deituak izan diren Batzar Nagusietara.
- Arduragabekeria edo axolagabekeria barkaezina, horrek kooperatibaren interesei kalterik egiten ez badie.
- Bazkide bakoitzaren zeregin eta erantzukizunen jardunbide egokia arinki oztopatzen duten dolozko ekintzak edo ez-egiteak.
- Bazkide langileei dagokienez, lana bertan behera uztea arrazoi justifikaturik gabe eta lanarekin zerikusia ez duten jarduerak egitea lan ordutegiaren barruan edo lantokiaren barruan, horiek guztiak arinki.
- Bazkideak izan ezean aplikagarri izango litzaiekeen hitzarmen kolektiboan bazkide langilearen jarduera profesionalaren prestazioaren ondoriozko diziplina araubiderako berariaz jasotzen diren bestelakoak.

b) Honako falta sozial hauek larriak izango dira:

- Falta arinak behin baino gehiagotan egitea urtebetetik beherako epean.
- Administratzaileen iritziz arrazoi justifikaturik gabe, hautatuak izandako kargu sozialak ez onartzea edo dimisioa ematea edo arduraz ez betetzea.
- Estatutu hauetan ezarritako betebeharrak ekonomikoak betetzean izandako atzerapena.
- Agiriak, gutunak eta datuak baimenik gabe gordetzea edo horiek aplikatzea dagokien erabileraz bestaldeko xede edo erabilera baterako.
- Bazkide bakoitzaren zeregin eta erantzukizunen jardunbide egokia larriki oztopatzen duten dolozko ekintzak edo ez-egiteak.
- Errendimendu falta, diziplina falta edo goikoen esanak ez betetzea lan arloan.
- Lana bertan behera uztea arrazoi justifikaturik gabe, horren garrantzia larria izanik.
- Bazkideak izan ezean aplikagarri izango litzaiekeen hitzarmen kolektiboan bazkide langilearen jarduera profesionalaren prestazioaren ondoriozko diziplina araubiderako berariaz jasotzen diren bestelakoak.

c) Honako falta sozial hauek oso larriak izango dira:

- Falta larriak behin baino gehiagotan egitea bi urtetik beherako epean.
 - Organo eskudunek baliozkotasunez hartutako erabakiak ez betetzea.
 - Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin erlazionatzeko garrantzitsuak diren agiriak, sinadurak, zigilu markak edo antzeko datuak faltsifikatzea.
 - Kooperatibako beste bazkide edo langileenganako hitzezko edo ekintzazko tratu txarrak, organo sozialen bilerak izaten direnean edo xede soziala aurrera eramateko beharrezko lanak, jarduerak edota eginkizunak betetzen direnean.
 - Haien izaera dela-eta kooperatibaren interes materialei edo prestigio sozialari kalte egin diezaieketen egintzak edo jarduerak aurrera eramatea.
 - Administratzaileei dagozkien funtzioak bere gain hartzea.
 - Kooperatibaren korrespondentziaren edo isilpeko agirien sekretua urratzea edo isilpeko datuak arrotzei erakustea.
 - Kooperatibaren xede sozialaren kontrako jarduerak aurrera eramatea edo sustatzea.
 - Estatutu hauetan zehaztutako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
 - Lanpostura ez bertaratzea justifikaziorik gabe edo hori ez jakinaraztea.
- Bazkide langileei dagokienez:
- Kooperatibaren oinarri sozialen kontrako aurkakotasun sistematiko eta proselitismo publikoa.
 - Bazkidearen eta kooperatibaren irudia edo prestigioa gutxitzen duten jardueretan nabarmenki eta maiz jardutea.

- Bazkide bakoitzaren zeregin eta erantzukizunen jardunbide egokia oso larriki oztopatzen duten doloizko ekintzak edo ez-egiteak.
- Diziplina falta edo goikoen esanak ez betetzea lan arloan, baldin eta horrek kooperatibari edo laneko lankideei kalte larria badakarkie, bai eta falta larriengatik jarritako zigorrak betetzeari uko egitea ere.
- Jarduera sektoreari men eginez, bazkideak izan ezean aplikagarri izango litzaiekeen hitzarmen kolektiboan beren-beregi azaltzen diren gainerakoak.

21. ARTIKULUA. FALTA SOZIALENGATIKO ZIGORRAK

BAT.- Falta arinengatik:

- Ohartarazpena idatziz.
- Bozkatzeko eskubidea etetea urtebeterainoko epean.
- Lan aurrerakinen bi egunerainoko diru zigorra.
- Pertsona juridikoak izanez gero, 300 eurorainoko diru zigorra. Zenbateko hori urtero eguneratuko da kontsumorako prezioen indizearen aurreko urteko gehikuntza portzentalaren heinean.

BI.- Falta larriengatik:

- Aurreko idatz-zatiko guztiak.
- Ohartarazpena idatziz, administratzaileen iritziz, jendaurrean ezar litekeena.
- Enplegu eta soldataren etenaldia, lan aurrerakinaren hiru egunetik sei eguneraino. Bazkide langileei dagokienez:
- Bozkatzeko eskubidea etetea bi urterainoko epean.
- Lan aurrerakinen 6 egunerainoko diru zigorra.
- Kooperatibaren administratzaile edo edozein organotako kide hautatua izateko gaitasungabetzea bi urteko epean, betiere behin betiko kalifikazioa egiten denetik zenbatzen hasita.
- Pertsona juridikoak izanez gero, 900 eurorainoko diru zigorra. Zenbateko hori urtero eguneratuko da kontsumorako prezioen indizearen aurreko urteko gehikuntza portzentalaren heinean.

HIRU.- Falta oso larriengatik:

- Aurreko bat eta bi idatz-zatietako guztiak.
- Eskubide sozial guztien edo batzuen etenaldia administratzaileek finkatu beharreko epe zehatz batean, baina 3 urtetik gorakoa izango ez den epean.
- Enplegu eta soldataren etenaldia, lan aurrerakinaren zazpi egunetik hogeita hamar eguneraino, eta kategorian gora egiteko gaitasungabetzea gehienez ere urtebetekoa izango den epean, betetako postua gorabehera. Bazkide langileei dagokienez:
- Lan aurrerakinen bi hilabeterainoko diru zigorra.

- Kanporaketa.
- Pertsona juridikoak izanez gero, 3.000 eurorainoko diru zigorra. Zenbateko hori urtero eguneratuko da kontsumorako prezioen indizearen aurreko urteko gehikuntza portzentualaren heinean.

22. ARTIKULUA. ZIGOR PROZEDURA

BAT.- Bazkideak falta sozialengatik zigortzeko, beharrezko espedientea izapidetuko da, honako arau hauei jarraituz:

a) Falta arinei dagokienez, Artezkaritza Kontseiluak gertakari edo ez-egite batzuen berri dituenen eta horiek faltatzat har daitezkeenean, hiru instruktore izendatuko ditu, hala badagokio, erruztatutako bazkidearen kontrako kargu plegua egiteaz arduratuko direnak. Hari idatziz jakinaraziko zaizkio faltaren behin-behineko kalifikazioa eta zigor proposamena; era berean, bazkideak deskargu plegua egin ahalko du hamar eguneko epean, instruktorearen jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, eta idatziz aurkeztu beharko dio Artezkaritza Kontseiluari. Une horretatik aurrera, gehienez ere bi hilabeteko epean, Artezkaritza Kontseiluak faltaren kalifikazioa ezarri beharko du, bai eta behin betiko zigorra ere, aldeztatik eta nahitaez interesdunari entzunda. Soilik ondoren adieraziko du zein den faltaren kalifikazioa eta behin betiko zigorra besterik ezean; salbu Artezkaritza Kontseiluak deiturik interesduna aurreko entzunaldira bertaratzen ez bada. Kontseiluaren ebazpenaren aurka egin daiteke, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legeak bere 49. artikuluan ezarritako izapideen bidez .

b) Falta larriak eta oso larriak zigortzeko prozedura falta arinentzat zehaztutako berbera da, salbuespen batekin: falta larrien eta oso larrien kasuan, Artezkaritza Kontseiluak erabakitzen duen zigorrari errekurtsioa jar dakiok eta horrek ez du kooperatibaren barneko bidea amaitzen. Bazkideak Artezkaritza Kontseiluaren zigor erabakia aurkaratu ahalko du Batzar Nagusiaren aurrean, zigorra jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean. Batzar Nagusiaren erabakiak amaiera ematen dio kooperatibaren barne bideari. Bazkideak Batzar Nagusiaren ebazpenaren aurka egin dezake, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 39. artikuluan aurreikusitako prozesu izapideen bidez .

BI.- Arau-hauste arinak hilabetez preskribatuko dira, larriak bi hilabeteko epean eta oso larriak hiru hilabetez.

Preskripzio epea zenbatzen hasiko da Artezkaritza Kontseiluak arau-haustea egin dela dakien egunean eta, edozein kasutan ere, egin denetik hamabi hilabetera. Preskripzio epea zigor prozedura hasten denean etengo da eta berriro ere hasiko da lau hilabeteko epean ebazpenik eman edo jakinarazi ezean.

HIRU.- Zigor guztiak exekutiboak izango dira errekurtsoren epea amaitzen den biharamunetik zenbatzen hasita, zigortutako bazkideak errekurtsorako eskubidea erabili ez badu, edo epai apelaezina hartzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

V. SEKZIOA. BARNE ANTOLAKETA FUNTZIONALA

23. ARTIKULUA. BARNE ANTOLAKETA FUNTZIONALAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK

BAT.- Laneko antolaketari eta ordainsariei dagokienez, honako zehaztapenak egin behar dira:

- a) Lan antolaketaren eta diziplinaren exekuzio eta aplikazio praktikoa zuzendari-gerenteari dagokio, Artezkaritza Kontseiluak emandako ordezkartzari jarraituz.
- b) Bazkide langileek lan aurrerakinak jasoko dituzte, betetako lanpostuaren arabera eta lanpostuan duten efikaziaren edo errendimenduaren arabera.
- c) Bazkide langileek hilean-hilean jasoko dituzte lan aurrerakinak, eta horiek ezingo dira inoiz ere izan lanbide arteko gutxieneko soldatatik beheragoak hilabeteko zenbaketan.
- d) Lan aurrerakinak kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura ordaindutako aldizkako lan aurrerakina dira eta, beraz, ez dute soldata izaerarik. Horren ondorioz, haien maila, azken batean, emaitza ekonomikoen heinekoa izango da.
- e) Lan aurrerakinak, urtean lan egin beharreko orduak eta 4/1993 Legearen 101-2. artikuluetan agertzen diren gainerako alderdiak Artezkaritza Kontseiluak zehaztuko ditu; hala ere, lan aurrerakinen gehieneko zenbatekoak ezingo du gaudituz sektorearen soldatapeko pertsonalari jardueraren eta kategoria profesionalaren arabera aplikatzen zaion hitzarmen kolektiboan ezarritako ordainsarien ehuneko berrogeita hamarra.

BI.- Pertsona fisikoei dagokien fiskalitatea bazkide langileen kontura izango da eta kooperatibak ez du inola ere subrogatuko.

HIRU.- Bazkide langileen lan araubideari dagozkion gaiak barne araubideko arautegian erregulatuko dira, betiere estatutu hauek xedatutakoa betez.

LAU.- Bazkide langile finkoen nahiz probaldikoen Gizarte Segurantzaren estaldurari begira, kooperatibak araubide orokorraren alde egiten du.

BOST.- Kooperatibaren soldatapeko pertsonalak ezingo du jaso sektorearen soldatapeko pertsonalari jardueraren eta kategoria profesionalaren arabera aplikatzen zaion hitzarmen kolektiboan ezarritako ordainsarien ehuneko berrogeita hamarretik gorako ordainsaririk.

III. KAPITULUA KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

24. ARTIKULUA. ORGANO SOZIALAK ETA ZUZENDARITZAKOAK

BAT.- Kooperatibak honako organo sozialak izango ditu:

- Batzarra.
- Artezkaritza Kontseilua.
- Zaintza Batzordea.
- Zuzendaritza.

BI.- Kooperatibak egokitzen jotzen dituen organoak sortu ahalko ditu bere operatibotasun eta garapenari begira, kasu bakoitzean zehaztutako ahalmenak eta guzti, baina betiere indarreko legeriak kooperatibarako beharrezkotzat jotzen dituenen eutsiz.

Hezkuntza itunen araubideari dagokionez, Administrazio Publikoarekin zehaztutako baldintzak betetzeko beharrezkoak diren organo guztiak izango ditu kooperatibak.

25. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA

BAT.- Bazkideek osatzen duten Batzar Nagusia borondate soziala adierazteko goreneko organoa da indarreko legeriak eta estatutu hauek ezartzen dizkioten gaitan.

Batzar Nagusia modu parekidean osatuko dute zuzeneko bazkide onuradunek eta bazkide langileek, bai eta bazkide ez-aktiboek eta bazkide laguntzaileek ere.

Batzar Nagusiaren erabakiek bazkide guzti-guztiak behartzen dituzte.

BI.- Batzar Nagusiari baizik ez dagokio honako erabaki hauek hartzea:

- a) Administrazioaileak, Zaintza Batzordeko kideak eta likidatzaileak boto sekretu bidez izendatzea eta kargutik kentzea eta haien kontrako

- erantzukizun ekintza egikaritzea.
- b) Kudeaketa soziala aztertzea eta urteko kontuak eta soberakinen banaketa edo galeren egozketa onartzea.
 - c) Obligazioak, partaidetza tituluak edo partaidetza bereziak jalkitzea.
 - d) Nahitaezko ekarkin berriak erabakitzea eta kapitalari egindako ekarkinek, sarrera kuotek eta aldizkako kuotek sortzen duten interesa ezartzea.
 - e) Estatutu sozialak aldaraztea.
 - f) Bigarren mailako kooperatibak, korporazi kooperatiboak eta antzeko erakundeak eratzea.
 - g) Sozietatearen fusioa, zatiketa, eraldaketa eta desegitea erabakitzea.
 - h) Kooperatibaren barne araubidea onartzea eta aldaraztea.
 - i) Kooperatibaren ekonomi, antolaketa edo funtzio egituraren funtsezko aldarazpena dakarten erabakiak, hala nola:
 - * Kooperatiba irakaskuntzako sare publikoan sartzea.
 - * Kooperatibaren aktibo eta pasibo guztiak besterentzea.
 - * Xede soziala aldaraztea, baldin eta horrek kooperatibaren sorrera eragin zuten xedeak eta jarduerak ez errespetatzea eta ez gordetzea badakar.
 - * Kooperatiba mota aldatzea.
 - * Eta indarreko legeriak edo estatutu hauek sorraraz ditzaketen bestelakoak.
 - j) Legeak ezarritako gainerako erabakiak.

HIRU.- Batzar Nagusiak kooperatibarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaien inguruan eztabaidatu ahalko du, baina nahitaezko erabakiak bakarrik hartu ahalko ditu beste organo sozial baten eskumen eskusiboa ez diren gaien inguruan.

LAU.- Legezko arauei jarraituz Batzar Nagusiak manuzko erabakia hartu behar duen egintzen gainean duen eskumena delegaezina izango da, artikuluko honen bigarren idatz-zatiaren g) letran jasotako integrazio kooperatiboaren prozesuetarako ezarritakoa izan ezik.

26. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA

BAT.- Artekaitza Kontseiluak deituko du ohiko Batzar Nagusia urtean behin, betiere ekitaldi soziala itxi eta lehenengo sei hilabeteen barruan; horrela, kudeaketa soziala aztertzeaz gain, urteko kontuak, soberakinen edo galeren banaketa eta gai zerrendan jasotako gainerako gaiak onartu ahalko ditu, hala badagokio.

Gai zerrendan Batzarraren eskumenekoak diren bestelako gaiak ere jaso ahalko dira.

BI.- Aurreko zenbakikoak ez diren Batzar Nagusiaren bilkurak ezohikoak izango

dira eta administratzaileek deituko dituzte, Zaintza Batzordeak edo gutxienez boto guztien %20 ordezkatzan dituzten bazkideek hala eskatuta; deialdia administratzaileei egingo zaien errekerimendu sinesgarri baten bidez egingo da, betiere eztabaidatu beharreko gaiak eta proposamenak jasoko dituen eguneko zerrenda erantsiz.

Ezohiko Batzar Nagusian gai zerrendan jasotako gai guztiak jorratu ahalko dira, baita Ohiko Batzarrari dagozkionak ere, baldin eta azken hori behar bezala egin ez bada.

HIRU.- Ohiko Batzar Nagusia legezko epearen barruan deitua izan ez bada, edozein bazkidek hala eskatuta deitu ahalko da. Horretarako, errekerimendu sinesgarria egingo die administratzaileei ez-egitea salatuz, eta administratzaileek deialdia bideratzen ez badute errekerimendua jaso eta hamabost eguneko epean, egoitza sozialeko lehen instantziako epaileari eskatuko dio Batzar Nagusia deitzeko, bai eta batzarburua izendatzeko ere. Era berean, deialdi judiziala ere eskatu ahalko da aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraituz, baldin eta administratzaileek eskariei men egiten ez badiete 30 eguneko epean.

LAU.- Batzar Nagusia egoitza sozialean agertu beharreko iragarki bidez deituko da; halaber, ikastetxeetako iragarki tauletan ere azaldu beharko da, bai eta honela ere:

- Egoitza soziala kokaturik dagoen lurralde historikoan zabalkunde handia duten bi egunkaritan beharrezko iragarkia jarritz, legez ezarritako kasuetan;
- Bazkide bakoitzari helarazi beharreko komunikazio idatzi bidez.

Deialdiak gutxienez bileraren ordua eta lehenengo, bigarren eta hirugarren deialdian biltzeko tokia adieraziko ditu; era berean, gai zerrenda zehatz-mehatz adierazi beharko du.

Deialdia egoitza sozialean argitaratu beharko da Batzarra izan baino hamar egun lehenago gutxienez eta hirurogei egun lehenago gehienez.

BOST.- Boto sozialen %10 baino gehiago ordezkatzan duten bazkide kopuruak administratzaileei zuzendutako idatzi bidez eskatu ahalko du gai zerrendan gai bat edo batzuk jasotzeko, betiere deialdia iragarri eta bost eguneko epean. Administratzaileek gai horiek jaso eta gai zerrenda berria argitaratu beharko dute legez exijitutako publizitatea emanda eta gutxienez Batzarra egin baino lau egun lehenago.

SEI.- Aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, bazkide guztiak bilkurara bertaratu badira edo bertan ordezkaturik badaude eta aho batez erabakitzen badute Batzar Nagusi unibertsala eratzea, bilera baliozkoa izango da eta ez da deialdirik

egin beharko. Batzar Nagusi unibertsal horrek gai zerrenda guztiak eta bertaratutakoen zerrenda onartu eta izenpetu ahalko ditu eta ez da beharrezkoa izango bazkideek horren ondoren bilkuran jarraitzea.

27. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

BAT.- Batzar Nagusia egoitza soziala dagoen udalerrian egingo da; hala ere, hori egiteko lokal egokirik ez badago, Artezkaritza Kontseiluak inguruko beste udalerrri bat finkatu ahalko du.

BI.- Batzar Nagusia baliozkotasunaz eratuko da lehenengo deialdian, baldin eta boto gehienak bertaratu badira edo ordezkaturik badaude; bigarren deialdian, gutxienez bazkideen botoen %10 bertaratu badira edo ordezkaturik badaude; eta hirugarrenean, bertaratutako bazkide kopurua edozein izanik ere.

Bertaratzeko eskubidea izango dute Batzar Nagusiaren deialdia erabaki zen datan izaera hori betetzen zutenak.

HIRU.- Bazkideek beren botoak beste bazkide batzuei ordezkatu ahalko dizkiete idatziz eta izaera bereziarekin Batzar Nagusi bakoitzari begira.

Batzar unibertsala denean, ordezkaritza egiaztatzeko idatziak ezinbestean jaso beharko du aurreikusitako gai zerrenda.

Bazkide bakar batek ere ezingo du bi ordezkaritza baino gehiago izan, bereaz gain. Ordezkaritza ezeztagarria da; ordezkaturia Batzar Nagusira bertaratzen bada, horrek ezeztapen balioa izango du.

LAU.- Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak jardungo du Batzar Nagusiko buru; era berean, Artezkaritza Kontseiluko idazkaria izango da Batzar Nagusian ere idazkari jardungo duena. Horiek bertaratu ezean, Batzarrak horretarako izendatutakoek jardungo dute kargu horietan.

Lehendakariari dagokio: eztabaidak zuzentzea, bere erantzukizunpean zaintzea ez dela desbideraketarik izango edo ez direla erabakien pean jarriko gai zerrendan jasota ez dauden gaiak, Batzarraren ordenari eustea eta legezko formalitateak beteko direla jagotea.

Idazkari gisa jardungo du Artezkaritza Kontseiluko idazkariak edo, halakorik ezean, Batzarrak hautatutako ordezkoak.

BOST.- Gai zerrendan jasotzen ez diren erabakiak baliogabeak izango dira, baldin eta legeriak beren-beregi baimentzen ez badu erabaki horiek hartzea.

SEL.- Administratzaileek Batzar Nagusietara bertaratu beharko dute eta, Artezkaritza Kontseiluak beharrezkotzat joz gero, pertsona kualifikatuak ere bertaratu ahalko dira, bazkideak izan gabe.

ZAZPI.- Idazkariak bilkuraren akta idatziko du eta akta horretan honakoak jasoko ditu, besteak beste: bilkuraren tokia eta data, deialdiaren data eta modua eta deialdiaren testu osoa, bertaratutako kideen kopurua eta ea eurak zuzenean edo ordezkartzaren bidez bertaratu diren, bilkura lehenengo edo bigarren deialdian egin den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jasotzeko eskatutako esku-hartzeak, hartutako erabakien edukia, bozketen emaitza eta aktaren onarpena (bilera amaitzean hori egin bada).

Akta Batzarrak berak onartu ahalko du bilkura amaitu eta gero edo, halakorik ezean, lehendakariak eta bilkuran izendatutako bi bazkidek onartu ahalko dute hamabost eguneko epean; hala, idazkariak eta horiek guztiek izenpetu beharko dute.

Batzarrera bertaratutakoek aktaren testu osoaren edo erabakien ziurtagiriak eskatzeko eskubidea izango dute; une horretan idazkari kargua betetzen duenak egin beharko ditu ziurtagiriak, lehendakariaren oniritziarekin.

ZORTZI.- Erabakiek ondorioak sorraraziko dituzte hartuak izan diren momentutik aurrera.

Inskribatu beharreko erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira akta onartu eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean.

28. ARTIKULUA. BOZKATZEKO ESKUBIDEA

BAT.- Bazkideek boto bana izango dute; hori ez da oztopo izango estatutu bidez bazkide mota bakoitzerako ezarritako mugak errespetatzeko, 21. artikuluan eskubidea eteteko jasotako kasuetan izan ezik.

BI.- Bazkideak ezin izango du bozkatzeko eskubidea bete, honako interes gatazka hauek azaltzen direnean:

- a) Erabakiak zuzenean eragiten dionean, adierazitako gehiengoaren zati denean izan ezik, eta
- b) kooperatibak aurrera eramandako erantzukizuneko ekintza baten subjektua denean.

29. ARTIKULUA. GEHIENGOAK

BAT.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutako botoen eta baliozkotasunaz ordezkaturako botoen gehiengo soilaz hartuko dira; hori hala izango da, indarreko legeriak edo estatutu hauek gehiengo sendoagoa ezartzen duten kasuetan izan ezik.

BI.- Nolanahi ere, bertaratutako botoen eta baliozkotasunaz ordezkaturako botoen bi hereneko gehiengo sendoagoa beharko dute sozietatea desegiteko berariazko erabakiak edo erabaki implizituak, hezkuntza titulartasunaren lagapena dakarren edozein erabakik eta estatutu sozialen artikulua honen aldarazpenak.

HIRU.- Gai zerrendan agertzen ez denean, Artezkaritza Kontseiluko kideak kargutik kentzeko erabakiak bertaratutako botoen eta baliozkotasunaz ordezkaturako botoen bi herenen aldeko bozka beharko du.

30. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK AURKARATZEA

BAT.- Aurkaratu ahalko dira Batzar Nagusiak hartu bai baina legearen kontrakoak diren erabakiak, estatutuen aurkakoak direnak edo kooperatibaren interesak kaltetzen dituztenak bazkide baten edo batzuen edo hirugarrenen alde.

Legearen kontrako erabakiak baliogabeak izango dira; gorago aipaturako gainerako erabakiak baliorik gabe utzi ahalko dira.

Ez da bidezkoa izango indarririk gabe utzi den edo beste baten ordezkotasunaz aldatu den erabakia aurkaratzea.

BI.- Honakoak legitimaturik daude erabaki baliogabeak aurkaratzeko ekintzak aurrera eramateko: a) bazkide guztiak, b) administratzaileak, c) Zaintza Batzordeko kideak eta d) interes legitimoa duten hirugarrenak.

Aurkaratzeko ekintza urtebete igarota iraungiko da, eraginengatik edo edukiagatik ordena publikoaren kontrakoak diren erabakiak izan ezik.

HIRU.- Honakoak legitimaturik daude baliorik gabe utz daitezkeen erabakiak aurkaratzeko ekintzak aurrera eramateko: a) Batzar Nagusiaren aktan erabakiaren aurka zeudela azaldu zuten bazkide bertaratuak; b) bertaratu ez zirenak edota legez kontra botorik gabe geratu zirenak, c) administratzaileak eta d) Zaintza Batzordeko kideak.

Aurkaratzeko ekintza 40 eguneko epean iraungiko da.

Puntu honetan eta aurrekontuan aurkaratzeko adierazitako epeak zenbatuko dira erabakia hartu denetik edo, inskribatzeko modukoa izanez gero, kooperatiben

erregistroan inskribatua izan denetik.

LAU.- Erabakiak aurkaratzeko ekintzak Sozietate Anonimoen Araubide Juridikoari buruzko Legeak ezarritakoari lotuko zaizkio; hala ere, aurkaratutako erabakia eteteko eskaera egiten duenak Zaintza Batzordea izan behar du edo gutxienez botoen %20 ordezkatzeko duen bazkide kopuruak.

BOST.- Erabakia aurkaratzearen aldeko epaiak eraginak izango ditu bazkide guztien artean, baina ez die eragingo hirugarrenek aurkaratutako erabakiaren ondorioz fede onez eskuratutako eskubideei. Aurkaratutako erabakia Kooperatiben Erregistroan inskribaturik badago, epaiak haren ezeztapena eragingo du.

31. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUA. IZAERA ETA ESKUMENAK

BAT.- Administratzaileak kooperatiba kudeatzen eta ordezkatzeko duten organoa dira eta kide anitzeko organo gisa eratzen dira Artezkaritza Kontseiluaren izenaren pean.

BI.- Artezkaritza Kontseiluak honako ahalmen zehatzak ditu:

- a) Bazkideen onarpenarekin eta bajarekin zerikusia duten gai guztien inguruan erabakitzea prozesu horiek amaitu arte eta modalitate guztietan, estatutu hauek ezarritakoarekin bat.
- b) Eskuordetzeko ahalmena izanik, kooperatiba erantzukizun osoarekin ordezkatzeko ekintza eta kontratu mota guztietan, bereziki parte hartzen duen erakundeen Batzar Nagusietan.
- c) Zuzendaria izendatzea bazkideak ordezkatzeko organoei kontsulta egin eta hari proposatu ondoren, sailtako zuzendariak eta administratzaileak ere izendatzea, horiek guztiak kargutik kentzea eta haien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak finkatzea. Hala badagokio, horien kontrako erantzukizunpeko ekintzak egikaritzea.
- d) Pertsonalaren baldintza ekonomikoak adostea eta lankidetzarako baldintzak eta moduak finkatzea.
- e) Hainbat gairekin zerikusia duten gaien inguruan erabakiak hartzea: estatutuen eskubide eta betebeharrak, bazkideen lan eta diziplina araubidea, sailkapen profesionala eta lan antolaketa eta lan aurrerakinen oinarritzko moduluaren onarpena, betiere estatutu hauek ezarritakoari lotuz.
- f) Kooperatibaren ibilbidea antolatzea, zuzentzea eta ikuskatzea eta Batzar Nagusiari urteko kudeaketa planak eta epe luzeko plan estrategikoak aurkeztea, bai eta kooperatibaren politikaren eta estrategia orokorren proposamenak ere.
- g) Bidezko erabakiak hartzea kontseilarien ukoen inguruan, hutsik dauden

lanpostuak betetzearen inguruan eta, oro har, organoaren barne erregulazio funtzionalaren inguruan, eta dagozkion edo bere eskumenekoak diren erabakiak baliogabetzeko ekintzak egikaritzea.

- h)** Zuzendaritza Kontseiluaren erregulazioa onartzea, aldez aurretik entzunaldia emanda edo hark halaxe proposatuta.
- i)** Batzar Nagusiari kooperatibaren estatu sozialetan eta barne araubidean egokitzat jotzen dituen aldarazpenak proposatzea.
- j)** Estatutuen eta arauen manuak zuzen aplikatzeko edo Batzarraren erabakiak betearazteko beharrezko arautegi funtzionalak onartzea eta Batzar Nagusiari estatutu hauetan ezarritako arautegi instituzionalak edo kooperatibaren barne arautegia proposatzea, bai eta Batzar Nagusiaren erabakiaren pean jartzea ere garrantzitsutzat jotzen dituen bestelakoak.
- k)** Xede soziala aurrera eramateko beharrezkoak edo komenigarriak diren ekintzak gauzatzea eta kontratuak egitea, betiere alde batera utzi gabe ondasun higiezinaren eskuraketa edo besterenganaketaren inguruak, eskubide errealeen osaeraren ingurukoak, hipoteken ingurukoak eta errentamenduen ingurukoak, eta estatutu hauek kooperatibari ahalbidetutako bestelako negozio eta operazioen inguruan ebatzea.
- l)** Kooperatibari komeni zaizkion eta Batzar Nagusiari erreserbatu ez zaizkion kreditu edo mailegu eragiketak edo sinadura bermekoak erabakitzea.
- m)** Abalak ematea erakunde publiko nahiz pribatuen aurrean eta zuzenbidean onartutako tituluak, zor publikoa edota balio higigarriak edo higiezinak erostea, saltzea, sinatzea eta gordailutzea, horiek egokitzat jotzen den moduan afektatuz.
- n)** Ekarkinak harpidetzeko eta bonoak eta obligazioak jalkitzeko beharrezkoa dena ezartzea, betiere Batzar Nagusiak erabakitakoaren arabera.
- o)** Funts eskuragarrien inbertsio zehatza zehaztea, bai eta erreserba eta hezkuntza funtsena eta sustapen sozialekoena ere, Batzar Nagusiaren erabakiak errespetatuz; era berean, aurrekontuak osatzea, gastuak baimentzea eta kooperatibaren ahalordeak eta ordezkariak izendatzea, betiere kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren ahalmenak emanez.
- p)** Urtero-urtero Ohiko Batzar Nagusiari urteko kontuak aurkeztea eta soberakin garbien banaketa edo, hala badagokio, galeren egozketa proposatzea.
- q)** Batzar Nagusiak deitzea, prozesamenduan sortutako gaiak ebatzea eta erabakiak betearaztea.
- r)** Kooperatibari dagozkion eskubideen edo ekintzen gauzateari buruz komenigarria iruditzen zaiona adostea, epaitegi eta auzitegi arrunten edo berezien aurrean eta Estatuko, lurraldeko administrazio autonomoetako edo udalerrietako bulegoen, agintarien, korporazioen edo erakundeen aurrean, baita ohiko eta ezohiko errekursoen aurkezpenari dagokionez ere, horretarako kooperatiba ordezkariak edo defendatutako duten ordezkariak,

prokuradoreak edo abokatuak izendatuz. Azken horiei, kontziliazioetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, errekursoetan edo edozein motatako jarduketetan ados egoteko edo horiei uko egiteko beharrezko ahalmenak emango dizkio, bai eta edozein prozedura egoeratan ere, horren geldialdia eskatzeko edo beste edozertarako (bai eta hainbat esparrutan judizialki amore emateko ere).

- s) Funts eta ondasun sozialak izatea, erreklamatzera, jasotzea eta kobratzea, bai partikularrenak bai bulego publikoenak, gordailuak sortuz edo kutxa orokorretik hartuz, interes sozialei komeni zaien lekuan. Bankuko kontu korrronteak sortzea, bai diruarentzat bai kreditu edo balioentzat, eta horietatik dirua edo balioak ateratzea, eta, oro har, era guztietako banku eragiketarako egitea erakunde nazionalekin eta atzerrikoekin, baita Espainiako Bankuarekin ere. Korrespontsaleen esku dauden funtsak eta ondasunak erabiltzea. Kanbio letrak igortzea, endosatzea, abala ematea, onartzea, negoziatzea eta ordaintzea.
- t) Ahalmenak ematea pertsona jakin batzuei, ondorio zehatzetarako edo sozietatearen jardueraren alderdi zehatz batzuk zuzentzeko.
- u) Batzar Nagusiari kooperatibak ordainketak eteteko, porrot egiteko eta desegiteko espedienteak proposatzea, hala badagokio, eta eskumeneko prozesuetako fase desberdinak betetzea.
- v) Estatutu hauek interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, hurrengo Batzar Nagusian horren berri emanez.
- x) Estatutu hauek bereziki esleitutakoak.

HIRU.- Aipatutako Artezkaritza Kontseiluaren ahalmenen zerrenda adierazpen bat besterik ez da, eta ez ditu bere ahalmenak mugatzen Legeak kooperatibaren beste organo batzuei bereziki erreserbatzen ez dizkien ahalmenei dagokienez.

32. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN OSAERA, HAUTAKETA ETA BETE GABEKO KARGUAK

BAT.- Artezkaritza Kontseilua hamar administratzailek osatuko dute; horietatik hiruk lehendakariaren, lehendakariordearen eta idazkariaren karguak beteko dituzte. Horiek izendatzean beste horrenbeste ordezkari hautatu ahal dira, eta horiek ordeztuko dituzte estatutuen arabera geratzen zaien denbora tartean, kargua behin betiko utziz gero.

BI.- 4/93 Legearen 45.4. artikuluan ezarritakoa betez, Artezkaritza Kontseilua osatuko dutenak honakoak izango dira: zuzeneko bazkide onuradunen bost ordezkari (horietariko bat lehendakaria izango da) eta bazkide langileen bost ordezkari. Horiek guztiak estatutu hauen 6. artikuluan ezarritako sektoreetako bazkideek hautatuko dituzte bozketa sekretu bidez lau urteko eperako, eta berriro ere hautatuak izan ahal dira beste lau urterako. Epea igarota, administratzaileek

karguan jarraituko dute behin-behinean, harik eta hurrengo Batzar Nagusia izan arte.

Kideak partzialki berrituko dira bi urterik behin; lehenengo berriketak bazkide onuradunen artean aukeratutako hiru administratzaileari eta bazkide langileen artean aukeratutako beste biri eragingo die.

HIRU.- Hauek ezingo dira administratzaileak izan:

- a) Porrot egin eta konkurtsoan sartutakoak (gaitu ez badira), adingabeak eta ezinduak, kargu publikoetan aritzeko ezgaitzen duten zigorrak dituztenak, legeen edo xedapen sozialen hauste larriengatik zigortuak izan direnak, eta beren karguagatik irabaziak ematen dituzten jarduera ekonomikoak gauzatu ezin dituztenak.
- b) Funtzionarioak eta administrazioan lan egiten dutenak, baldin eta kooperatibaren jardurekin zerikusia duten funtzioak badituzte beren esku.
- c) Norberaren edo beste baten kontura kooperatibari lehia egiten dioten jarduerak gauzaten dituztenak edo horren aurkako interesak dituztenak.
- d) Eszedentzian dauden bazkideak, horrek dirauen bitartean. Zaintza Batzordeko kideak eta zuzendari-gerentea.

LAU.- Batzar Nagusiak administratzaileak kargutik kentzea erabaki dezake, nahiz eta hori gai zerrendan agertu ez; horretarako, hala ere, kargugabetzearen alde bozkatu beharko dute bilkurara bertaratu edo bertan ordezkaturako botoen bi herenek.

Administratzailearen bat kargutik kentzen badute, administratzaile berria Batzar Nagusiko bilkura berean hautatuko da, hori gai zerrendan agertu ez arren.

BOST.- Administratzaileak, arrazoia edozein dela ere, kargutik kentzea erabakiz gero, horrek ondorioak izango ditu hirugarrenei begira Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den datatik aurrera.

33. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

BAT.- Artezkaritza Kontseilua hilean behin bilduko da nahitaez, Kooperatibaren jarduera nagusia oporreatatik etenda dagoen aldietan izan ezik. Ezohiko deialdiak ere egin ahalko ditu, administratzailearen batek hala eskatuz gero. Bilkuretan bere eskumenean dituen gai guztiak landu eta erabaki ahalko ditu.

BI.- Lehendakariak egingo ditu Artezkaritza Kontseiluaren bilkuren deialdiak,

aipatutako organoa osatzen duten kide guztiei idatzi bat bidalita.

Lehendakariak zazpi eguneko epean aurreko atalean zehaztutako ezohiko deialdiaren eskaerari erantzuten ez badio, eskaera arrazoitua egin duenak egin ahalko du Artezkaritza Kontseiluaren deialdia; horretarako, gutxienez administratzaileen heren baten atxikimendua lortu beharko du.

HIRU.- Artezkaritza Kontseilua behar bezala osatuta geldituko da bilkuran bertako kideen erdia baino gehiago elkartzen badira. Bertaratzea pertsonala izango da (ezin izango da ordezkari bidali), eta akordioak bertan dauden administratzaileen gehiengo soilaz erabakiko dira. Kontseilariak boto bana izango dute. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren botoa izango da erabakiko duena.

LAU.- Lehendakariak eta idazkariak sinatutako bilkurako aktan, eztabaidak laburtuta, akordioen testua eta botazioen emaitzak jasoko dira.

BOST.- Artezkaritza Kontseiluak gutxienez bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Jarduera zentro nagusi bat, edo horren zati esanguratsu bat, ixtea edo lekualdatzea.
- b) Kooperatibaren jarduerak murriztea, zabaltzea edo aldaketa garrantzitsuak egitea.
- c) Kooperatibaren antolamendurako aldaketa garrantzitsuak egitea.
- d) Beste erakunde batzuekin (kooperatibak izan edo ez) kooperatibarentzako lankidetzak iraunkorra eta baliotsua ekar dezaketen loturak ezartzea edo suntsitzea.

Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren botoa izango da erabakiko duena.

SEI.- Artezkaritza Kontseiluak ahalmenen bat Batzorde Betearazlearen edo kontseilari ordezkariaren baten esku uzteko, eta kargu horiek beren gain hartuko dituzten Kontseiluko kideak izendatzeko, beharrezkoa izango da Artezkaritza Kontseilua osatzen duten kideen bi herenen aldeko botoa izatea. Izendapen horrek ez du eraginik izango, harik eta Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den arte.

34. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUARI BURUZKO XEDAPENAK: ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN KARGUEN FUNTZIOAK

Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Kooperatibaren legezko ordezkariak bere gain hartzea, Artezkaritza Kontseiluaren izenean, mota guztietako gaitan; bai eta Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren bilkuretan lehendakari lanak egitea ere.
- b) Ahalordeak ematea eta dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatzea, Batzar Nagusiak edo Artezkaritza Kontseiluak hartutako erabakiak betetze aldera.
- c) Bere botoarekin, Artezkaritza Kontseiluan erabakiak hartzean sor daitezkeen berdinketak ebaztea.
- d) Premiazko erabakiak hartzea, eta lehenbailehen horien berri ematea, Artezkaritza Kontseiluaren hurrengo bileran.
- e) Egiten diren ordainketak baimentzea, horiek sinatuta.

Idazkariak honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Espedienteak sortzea eta behar dituzten izapideak egitea.
- b) Lehendakariarentzat erreserbatuta ez dauden gutunak eta dokumentuak sinatzea.
- c) Batzar Nagusiaren eta Artezkaritza Kontseiluaren deialdiak idaztea eta bideratzea.
- d) Aipatutako organoen bilkuretako aktak egitea.
- e) Batzar Nagusiaren eta Artezkaritza Kontseiluaren artxiboaren, liburu-erregistroaren eta akten liburuaren gordailuzaina izatea.
- f) Kooperatibaren liburuei eta dokumentuei dagozkien ziurtagiriak igortzea, lehendakariaren oniritziarekin.

35. ARTIKULUA. ADMINISTRATZAILEEN ERANTZUKIZUNAK

BAT.- Administratzaileek ez dute ordainsari zehatzik jasoko beren karguagatik; dena den, konpentsazio ekonomikoak jaso ditzakete beren funtzioak gauzatzean izan ditzaketen gastuengatik.

Bazkide langileak direnean, administratzaile zereginak betetzeko lan orduak ordainduko dira, dagokion lan indizearen arabera.

BI.- Administratzaileek ordezkari leial eta kudeatzaile txukun bati dagokion arretaz gauzatuko dituzte beren karguak, legearen edo estatutuen aurkako ekintzengatik edo beharrezko zuzentasunik gabe gauzatutakoengatik sor ditzaketen kalteen ardura beren gain hartuz.

Ekintza gauzatu duen edo akordio kaltegarria hartu duen organoko kide guztiek hartuko dute erantzukizuna beren gain, modu solidarioan. Erantzukizun horretatik salbuetsiko dira ekintza hori erabakitze edo gauzatzeko prozesuan ez zeudela eta horren ezagutzarik ez zutela frogatzen duten pertsonak edo, ezagututa

ere, kaltea saihesteko ahal zuten guztia egin zutenak edo, gutxienez, espresuki ekintza horri aurka egin ziotenak.

Batzar Nagusiak ekintza edo akordio kaltegarria hartu, baimendu edo berretsi izanak ez ditu kide horiek erantzukizunetik salbuetsiko.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluko kideen aurkako erantzukizunen ekintza soziala kooperatibak gauzatu ahalko du, Batzar Nagusiak gehiengo arruntaren bidez hala adostu ondoren, gai zerrendan halakorik zehazten ez bada ere. Batzar Nagusiak edozein unetan egin diezaioke uko ekintza hori gauzatzeari. Batzar Nagusiak erantzukizun ekintza sustatzeko hartutako akordioaren ondorioz, gaiarekin zerikusia duten administratzaileak berehala kargugabetuko dira.

Kooperatibak hiru hileko epean erantzukizun ekintza bati ekiten ez badio, dagokion akordioa hartzen duen datatik kontaktzen hasita, ekintza hori edozein bazkidek gauzatu ahalko du.

LAU.- Ekintza preskribatuko da erantzukizun hori sorrarazi duten gertaerak sortzen direnetik edo horien berri izaten denetik bi urtera.

BOST.- Aurreko zenbakietan ezarritakoa alde batera utzita, ez dira kontuan hartuko bazkideei edo beste pertsona batzuei beren interesak administratzaileen ekintzen ondorioz kaltetu izanagatik dagozkien banakako ekintzak.

36. ARTIKULUA. ZAINZA BATZORDEA

BAT.- Batzar Nagusiak estatutu hauen arabera bateraezintasun edo eskubideen etenaldian sarturik ez dauden bazkideen artetik hiru kide aukeratuko ditu hiru urterako isilpeko botazioan, Zaintza Batzordea osatzeko, bai eta hiru ordezkio ere, hala badagokio.

BI.- Zaintza Batzordeko kideak berraukeratu ahalko dira eta estatutu hauetan eta legerian administratzaileentzat ezarritako erantzukizun, ezgaitasun, debeku, ordainketa eta inskripzio arauen pean jardungo dute betiere.

HIRU.- Administratzaileek Zaintza Batzordeari jakinarazi beharko diote gutxienez hiru hilabeterik behin zeintzuk diren kooperatibaren jarduerak eta zein den aurreikusten den bilakaera.

LAU.- Zaintza Batzordeak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Urteko kontuak aztertzea eta horiei buruzko nahitaezko txosten bat egitea, baita soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamen

bat ere, Batzar Nagusian aurkeztu aurretik, baldin eta kooperatibak bere finantza egoera kontu ikuskaritza baten menpe uzteko betebeharra ez badu.

- b) Kooperatibaren liburuak aztertzea.
- c) Batzar Nagusia biltzeko deialdia egitea beharrezkoa iruditzen zaionean, kooperatibaren intereserako, eta administratzaileek hori aintzat hartu ez dutenean estatutuek ezarritakoarekin bat.
- d) Ordezkapen idazkien egokitasuna aztertzea eta kalifikatzea, eta, oro har, batzarretara bertaratzeko eskubideari buruzko zalantzak edo horrek izan dezakeen eragina argitzea.
- e) Legeriak ezarritako kasuetan akordio sozialak aurkaratzea.
- f) Batzar Nagusiari bere eraginpean dituen egoeren edo gai zehatzen berri ematea.
- g) Batzar Nagusiak gainerako organoetako kideak hautatzeko eta izendatzeko gauzatzen duen prozesua zaintzea.
- h) Ezgaitasun arrazoiren bat betetzen duten administratzaileak kargutik kentzea, eta, hala badagokio, beharrezko neurriak hartzea, Batzar Nagusia egin arte.
- i) Eta legeak onartzen dizkion gainerako zereginak.

Zaintza Batzordeak bere misioa betetzeko beharrezko egiaztapenak egiteko eskubidea du eta zeregin hori kide bati edo batzuei eman diezaietke edo adituek laguntzeko eskatu, beharrezkotzat joz gero.

BOST.- Zaintza Batzordeak laugarren zenbakian eta legerian zehaztutako zereginak beteko ditu, baina ezin izango du zuzenean esku hartu kooperatiba hirugarrenen aurrean kudeatzeko eta ordezkatzeko zereginean; hala ere, kooperatiba ordezkatzeko du administrazio organoaren aurrean edo kideen aurrean, organo horren kontrako aurkarapen judizialik badago edo kideekin kontratuak amaitzen badira.

37. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA. IZENDAPENA ETA KARGUA UZTEA.

BAT.- Artezkaritza Kontseiluak zuzendari bat izendatuko du, kooperatibaren jarduera pedagogikoaren, jardueraren edo xede nagusiaren kudeaketa profesionalizatuaz ardura dadin.

Zuzendaritza kooperatibaren kudeatzaile exekutiboa izango da, kooperatibaren menpeko zentroen funtzionamendu egokiaren eskakizunei begira eta zuzendaritza zentroei dagozkien xedapen orokorrei begira.

Gainera, zuzendaritzak irakasleen barne organigrama eta haren aldarazpenak

proposatuko ditu Artezkaritza Kontseiluak onar ditzan, bai eta organigramaren funtzionamendua ere, horren barruan ikasketa burutzak, tutoretzak, klaustroak eta zentroaren xedea betetzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako organoak. Halaber, horiek guztiak elkarren artean koordinatzeko erantzukizuna izango du.

Kooperatibaren hezkuntza proiektuaren arduraduna izango da; hala, Artezkaritza Kontseiluari proposatu beharko dio onar dezan, eta abiarazteko erantzukizuna izango du eta emaitzen erantzulea ere izango da.

BI.- Zuzendaria edo zuzendariak karguari datxezkion betebeharrak izango dituzte edo haren eta kooperatibaren artean ezarritako kontratuan agindutakoak edo Artezkaritza Kontseiluak ezarritako jarduketa jarraibide orokorren ondoriozkoak. Gutxienez hiru hilerik behin aurkeztu beharko dio kontseiluari kooperatibaren egoera pedagogiko, hezkuntzazko eta sozialari buruzko txostena.

HIRU.- Era berean, Artezkaritza Kontseiluak kooperatibaren arlo ekonomiko eta administratiboa gerentzia bidez kudeatzeko zuzendaritza eratu ahalko du.

Honako erantzukizunak izango ditu: kooperatibaren funtzionamendu administratibo egokia izatea, Artezkaritza Kontseiluari emaitzak aurkeztea onartuak izan daitezen, beste estamentu batzuekin batera kudeaketa planak prestatzea Artezkaritza Kontseiluari aurkezteko eta horiek betetzea.

LAU.- Artezkaritza Kontseiluari dagozkio zuzendariaren edo zuzendarien ebaluazioa eta ordainketa. Artezkaritza Kontseiluak zuzendaria hitzartutako epea izan aurretik kargutik kentzea erabakitzen duenean, horren berri eman beharko dio lehenengo Batzar Nagusiari, horretarako arrazoiak azalduz; orobat, kargugabetzea gai zerrendan jasoko da.

BOST.- Zuzendaritzen osaerak eta funtzionamenduak honako arauak beteko dituzte:

- 1) Zuzendaritzak pertsona bakarrak osatu ahalko ditu edo kide anitzek.
- 2) Zuzendaritzaren eskumenak Artezkaritza Kontseiluak eskuordetutakoak izango dira betiere; orobat, Artezkaritza Kontseiluak kontrol iraunkorra eta zuzenkoa izango du.
- 3) Kontseilu hori, era berean, zuzendaritzak osatu behar dituzten pertsonak izendatzeko eta kargutik kentzeko organo eskuduna izango da. Izendapenak eta kargugabetzeak Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira.
- 4) Zuzendaritzen titularra edo kidea izateko, ez beharrezkoa izango kooperatibaren bazkidea izatea.
- 5) Zuzendaritzei Artezkaritza Kontseiluarentzat ezarritako erantzukizun arauak aplikatu ahalko zaizkio; hala ere, Artezkaritza Kontseiluak berak

egikaritu ahalko du erantzukizun ekintza, Batzar Nagusiaren akordio sozialei aurka egiteko ezarritako epe berean.

- 6) Ezin izango dira zuzendaritzako kideak izan estatutu hauen 32. artikulua 3. zenbakian zehaztutako debekuak eta bateraezintasunak dituzten pertsonak.
- 7) Artezkaritza Kontseiluaren bileretan hizpidea izango dute baina ez hautespiderik.

IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

38. ARTIKULUA. IRIZPIDE OROKORRAK

BAT.- Araubide ekonomikoaren erregulazioan kooperatibaren ondarearen egonkortasuna bermatzeko beharrezko mekanismoak ezarriko dira, bazkideen eta kooperatibaren interesaren alde eta harekin erlazionatzen diren hirugarrenen berme gisa.

BI.- Bazkideek jaso beharreko kapitalaren eta lanaren ordainsariak eta haiei eskainitako zerbitzuen prezioa zehaztuz eta zorrotasunaz zehaztuko dira, betiere kooperatibaren egoera eta ondare bilakaera eta etorkizuneko premiak kontuan hartuz.

HIRU.- Kooperatiba mantentzea helburu, hala zerbitzu eta jarduera sozialak estali ahal izateko, Batzar Nagusiak aldizkako kuotak ezarri ahalko dizkie bazkideei.

LAU. - Bazkideek kooperatibaren eragiketa sozialetan duten erantzukizun ekonomikoa

39. ARTIKULUA. KAPITAL SOZIALA. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

BAT.- Kooperatibaren kapital soziala Kooperatibei buruzko 4/1993 Legearen 57.1 b) artikuluan zehaztutako ekarkinek osatuko dute, baita Lege horren arabera kapital sozialtzat har daitezkeen gainerako ekarkinek ere.

BI.- Kooperatibaren gutxieneko kapital soziala guztiz harpidetu eta ordaindutako 61.940,31eurokoa izango da.

HIRU.- Ekarkinak dirutan egingo dira, baina ondasun eta eskubideetan ere egin ahalko dira; kasu horretan, Artezkaritza Kontseiluak horien balioa zehaztuko du, alde zuzenetik horretarako izendatutako aditu independente baten txostena

kontuan hartuz.

LAU.- Bazkideek ezin izango dute kapital sozialaren herena baino gehiagoko ekarkina izan, bazkide laguntzaileek izan ezik.

40. ARTIKULUA. KAPITAL SOZIALARI NAHITAEZ EGIN BEHARREKO EKARKINAK ETA SARRERA KUOTA

BAT.- Hasierako nahitaezko ekarkina desberdina izan daiteke bazkide motaren arabera; hona hemen ekarkinaren zehaztapenak:

- Zuzeneko bazkide onuradunak: 30,05 €
- Bazkide langileak: 1.200,00 €
- Bazkide laguntzaileak:
 - o Pertsona fisikoak: 30,05 €
 - o Pertsona juridikoak: 1.200,00 €
- Bazkide ez-aktiboak edo ez-erabiltzaileak: 30,05 €

Kapital sozialerako gutxienerako ekarkin gisa, une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarkinaren ehuneko berrogeita hamarra ezartzen da bazkide mota bakoitzarentzat, artikuluko honen laugarren zenbakian zehaztutakoaren arabera.

BI.- Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarkina guztiz harpidetu beharko da onartzen den unean. Une horretan, gutxienez zenbatekoaren %25 ordaindu beharko da; hala egin ezean, dagokion bazkidea ez da Bazkideen Erregistro Liburuan inskribatuko. Harpidetutako eta ordaindu gabeko gainerako zenbatekoa gehienez bi urteko epean ordaindu beharko zaio kooperatibari (onarpen akordioa hartzen den egunetik kontatzen hasita), Artezkaritza Kontseiluak hartutako onarpen akordioan zehaztutakoaren arabera.

HIRU.- Bazkideei kooperatibaren galerak egozteagatik edo estatutuetan zehaztutako zigor ekonomikoren batengatik bazkideren batek kapital sozialari egindako ekarkina artikuluko honen lehenengo zenbakian zehaztutako gutxienerako baino txikiagoa bada, bazkide horrek gutxienerako zenbatekora iritsi arte falta zaiona ordaindu beharko du (Artezkaritza Kontseiluak berehala egingo die horretarako eskaera dagokien bazkideei). Ekarkin hori Artezkaritza Kontseiluaren eskaera jaso eta hiru hilabeteko epean ordainduko du.

LAU.- Batzar Nagusiak urtero zehaztuko du bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarkina, eta nahitaezko ekarkin berriak eskatzeko aukera adostu ahaliko du, horien zenbatekoa (desberdina izango da, bazkide moten arabera), ordaintzeko epeak eta baldintzak zehaztuz. Nahitaezko kapital handitzearekin ados ez dauden bazkideek baja eman dezakete, eta hori justifikatutzat hartuko da.

Batzar Nagusiak bazkideentzako nahitaezko ekarkin berriak adosten baditu eta kooperatibak bazkideen borondatezko ekarkinak jasotzen baditu, borondatezko ekarkinak nahitaezko ekarkin berrien ordezkioak izan daitezke, baldin eta hala eskatzen badiote idatziz Artekari Kontseiluari. Horretarako epea hamar egunekoa izango da, akordioa hartu zenetik kontatuta bertan izan ziren bazkideentzat, eta akordioaren berri izan zutenetik bertan egon ez zirenentzat.

Halaber, Batzar Nagusiak bazkide berrientzako sarrera kuota bat finkatu ahalko du; gauzak horrela, bazkide berriek hori ordaindu beharko dute hasierako ekarkinarekin batera; nolana ere, haren zenbatekoa ez da izango nahitaezko ekarkinaren %25etik gorakoa.

Sarrera kuota horiek ez dira kapital sozialean txertatuko; izan ere, Nahitaezko Erreserba Funtsean sartuko dira eta ez dira itzulgarriak izango maila pertsonalean.

BOST.- Eskatutako ekarkinen ordainketan berandutzen diren bazkideek, aurreko ataletan ezarritakoari jarraituz, legezko interesa ordaindu beharko diote kooperatibari, baita berankortasun horrek sortutako kalte eta galerak ere. Beren egoera hirurogei eguneko epean normalizatzen ez duten bazkideek (hala eskatzen dietenetik kontatzen hasita), ondorio hauek izan ditzakete:

a) Nahitaez baja eman ahalko zaie, baldin eta ordaindu beharrekoa bazkidea izateko hasierako nahitaezko ekarkina edo artikulua honetako hirugarren atalak (lehenengoarekin lotuta) aipatzen duen gutxieneko zenbatekoa bada.

b) Gainerako kasuetan, kooperatibatik kanpo gera daitezke.

41. ARTIKULUA. BORONDATEZKO EKARKINAK

BAT.- Batzar Nagusiak bazkideek beren borondatez kapital sozialari egindako ekarkinak onartzea erabaki dezake, gutxienez honako kontzeptu hauei dagozkien baldintzak zehaztuz:

- Ordaintzeko epea
- Interes mota
- Eguneraketa
- Itzulketa
- Transmititzeko ahalmena

Baldintza horiek nahitaezko ekarkinenak baino onuragarriagoak izan daitezke.

BI.- Artezkaritza Kontseiluak bazkideen borondatezko ekarkinak onartu ahalko ditu, ordainketa mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz, 4/1993 Legearen 59-2 eta 57-4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

42. ARTIKULUA. EKARKINEN ORDAINSARIAK ETA BALANTZEEN EGUNERAKETA

BAT.- Kapital sozialari egindako nahitaezko ekarkinek ez dute interesik sortuko eta borondatezko ekarkinek ez dute inoiz gaindituko diruaren legezko interesa.

BI.- Kooperatibaren balantzea erregularizatu ahalko da zuzenbide arrunteko sozietateentzat ezarritako modu eta baldintza berberetan.

BI.- Balantzearen erregularizazioaren ondoriozko gainbalioaren zati bat galerak konpentsatzeko erabiliko da, ekitaldi batean edo gehiagotan, eta gainerakoa, Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu eta hark erabakitzen duen zenbatekoetan, kapitala eguneratzeko edo erreserbak (nahitaezkoak edo borondatezko banaezinak) areagotzeko erabiliko da.

43. ARTIKULUA. EKARKINEN TRANSMISIOA

BAT.- Kooperatibaren ekarkinen transmisioa oinarrizko bi helbururen araberakoa izango da:

- a) Transmittitzeko ahalmena ahalik eta gehien malgutzea.
- b) Ordainketa datetan izan daitezkeen gorabeherengatik transmissioren eragiketek kooperatibaren finantza egoerari kalte egitea saihestea.

BI.- Ekarkinak *inter vivos* ekintzen edo *mortis causa* ondorengotzen bidez transmiti daitezke; horretarako, aldez aurretik Artezkaritza Kontseiluak halaxe erabaki beharko du.

HIRU.- *Inter vivos* ekintzen bidez, bazkideen artean (hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenak barne), honako arau hauei jarraituz:

- bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenei transmisioa egiteko, bazkide gisa onartuak izan beharko dute;
- transmisioa egiten duten bazkidearen ekarkinak ezin izango du une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko nahitaezko ekarkina baino

txikiagoa izan;

- transmisioaren eskuratzailleak jasotako ekarkinak bere hasierako nahitaezko ekarkina ordezkatu ahalko du.
- Artezkaritza Kontseiluari adostutako transmisioen berri eman beharko zaio, horiek onar, kontrola eta erregistra ditzan.

LAU.- Mortis kausa ondorengotzen bidez, transmisioa kausadunei egingo zaie, baldin eta bazkideak badira eta horretarako eskaera egiten badute, edo, bazkide ez badira, oinordekoak heriotzaren ondorengo 3 hilabeteetan kausadunak bazkide egiteko eskaera egin eta hori onartu bada.

44. ARTIKULUA. EKARKINAK ITZULTZEA

BAT.- Bazkide izateari uzten dioten pertsonen kasuan, horiek edo beren eskubidedunek egin dituzten nahitaezko ekarkin kooperatiboak itzul diezazkiotela eska dezakete, baja emandako datan zuten balioarekin eta legezko xedapenetan horretarako ezarritako baldintzekin.

BI.- Artezkaritza Kontseiluak uko egin diezaioke ekarkinak itzultzeko edozein eskaerari, inolako baldintzarik gabe.

- a) Artezkaritza Kontseiluak itzulketa eskaera onartzea erabakitzen badu, itzultzeko epea ez da bost urtetik gorakoa izango erabaki horren datatik aurrera edo urtebetetik gorakoa, bazkidea zenduz gero. Horren ezarpena Artezkaritza Kontseiluaren eskumena izango da.
Artezkaritza Kontseiluak erabakitzen dituen itzulketak eskaeren antzintasun hurrenkeraren arabera egingo dira. Ekarkin sozialak itzultzeko baldintzen ezarpenari buruzko gainerako berezitasunak ere Artezkaritza Kontseiluaren eskumena izango dira.
Kooperatibak itzultzea erabakitako ekarkinei dagokienez, itzultzeko dauden zenbatekoek eskubidea emango dute ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran indarrean dagoen diruaren legezko interesa jasotzeko, baina ez dira eguneratuko.
- b) Artezkaritza Kontseiluak eskatutako itzulketari uko egitea erabakiz gero, uko egindako itzulketaren baten ekarkina mantentzen den bitartean, kooperatibaren organo sozialek ezingo dute honako erabakirik hartu:
 - i. Ekarkinen interesak sortzeko erabakia.
 - ii. Itzulketak banatzeko erabakia.

HIRU.- Baja behar bezala justifikatuta badago edo arrazoia heriotza bada, ez da ekarkinen gaineko kenkaririk aplikatuko.

Gainerako kasuetan, Artezkaritza Kontseiluak kenkari bat adostu ahalko du:

- %30era artekoa kanporatzeagatikko bajen edo justifikatu gabeko borondatezko bajen kasuan, gutxieneko egonaldia ez betetzeagatik,
- %20ra artekoa justifikatu gabeko borondatezko edo nahitaezko bajen kasuan.

Portzentaje horiek bazkidearen nahitaezko ekarkinen likidazio zenbatekoari aplikatu behar zaizkio, eta borondatezko ekarkinei ez zaie kenkaririk aplikatuko.

45. ARTIKULUA. ALDIZKAKO ETA EZOHIKO KUOTAK

BAT.- Batzar Nagusiak aldizkako kuotak ezarri ahalko ditu, eta bazkideek kuota horiek bete beharko dituzte, aipatutako organo sozialak ezarritako akordioan zehaztutako aldiak, zenbatekoak eta modua errespetatuz. Kuota horiek ez dira kapital sozialaren parte izango eta ezin izango zaizkie bazkideei itzuli.

BI.- Era berean, Batzar Nagusiak ezohiko kuotak onartu ahalko ditu beharrezkoa iruditzen zaionean, hala eskatzen duten inbertsio espezifikoei ekiteko.

Aldizkako eta ezohiko kuotak bazkide mota guztiei edo estutu hauetan zehaztutako sozietate tipologia bakar bateko kideei eskatu ahalko zaizkie.

46. ARTIKULUA. BESTELAKO FINANTZAZIOAK

Kooperatibak, beharrezko akordioak hartu ondoren, 4/1993 Legearen 65. artikuluko 3., 4., 5. eta 6. zenbakietan zehaztutako edozein finantziazio modalitate erabili ahalko du.

47. ARTIKULUA. SOBERAKIN GARBIAK

BAT.- Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza sozietateetarako ezarritako arauak eta irizpideak aplikatuko dira, hurrengo zenbakian ezarritakoa kontuan hartuta.

BI.- Hauek hartuko dira partida kengarrizat:

- kooperatibaren kudeaketarako entregatutako ondasunen zenbatekoa (ezin izango dute merkatuko prezioak baino gehiagoko balorazioa izan),
- Bazkide langileen lan aurrerakinen zenbatekoa, kooperatibaren jardueraren sektorerako gunean ohiko ordainsarrietatik gorakoa ez den kopuru orokorrean.
- Kapital sozialari egin beharreko ekarkinengatik, partaidetza bereziengatik, prestazioengatik eta kapital sozialean integraturik ez dauden bestelako finantziazioengatik sortutako interesak,

- Legez baimendutako amortizazioak,
- Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezko gastuak, eta
- aplika daitekeen indarreko legeriak ondorio berdinetarako onartutako beste edozein kenkari.

48. ARTIKULUA. SOBERAKINEN BANAKETA

Aurreko ekitaldietako galerak eta dagozkien zergak ordaintzera bideratutako zenbatekoak kendu ondoren gelditzen diren soberakin erabilgarrien banaketa Batzar Nagusiak erabakiko du honako arau hauei jarraituz:

- a) Gutxienez %30 nahitaezko erreserba funtsa eta hezkuntza eta sustapen kooperatiborako ekarkinetara eta interes publikoko beste helburu batzuetara bideratuko da. Gutxienez %10 hezkuntza eta sustapen kooperatiborako ekarkinetara eta interes publikoko beste helburu batzuetara bideratu beharko da eta %20 nahitaezko erreserba funtsa.
Nahitaezko erreserba funtsa kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamarreko zenbatekora iristen ez den bitartean, hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ezarritako gutxieneko zuzkidura erdira murriztu ahalko da.
- b) Gainerako soberakinak borondatezko erreserba funts bat eratzera bideratuko dira; funts horri etorkizuneko galerak konpentsatzeko funts berezi iritziko zaio eta ezin izango da banatu, likidazioaren kasuan izan ezik.

49. ARTIKULUA. NAHITAEZKO FUNTSAK

BAT.- Nahitaezko Erreserba Funtsa ezin izango da bazkideen arteko banatu.

Bazkidearen bajen eta sarrera kuoten kasuan, estatutuetan ezarritako soberakinen konturako zuzkidurez gain, ekarkinen gaineko kenkariak ere nahitaez bideratu beharko dira funts honetara.

BI.- Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarkina banaezina eta bahiezina izango da eta ekarkin horretara bideratuko dira estatutu hauetan ezarritako emaitza erabilgarrien konturako zuzkidurak, bai eta diziplina bidean bazkideei ezarritako zigor ekonomikoen zenbatekoa ere.

50. ARTIKULUA. GALERAK EGOZTEA

BAT.- Galerak kontu berezi batera egotzi ahalko dira etorkizuneko emaitza positiboen kontura amortizatzen, 5 urteko gehieneko epearen barruan.

BI.- Ekitaldiaren amaieran, administratzaileek itxiera datako emaitzen kontuaren saldoaren zuzkidura egingo dute. Aurreikusitako saldo horrek erreserba funtsekin edo baimenarekin ezin konpentsa daitezkeen galerak izanez gero, bazkide onuradunei gainerako saldoa egotziko zaie dagokien derramaren bidez, artikulua honen lehenengo puntuan ezarritako bidea erabiltzen denean izan ezik.

HIRU.- Galeak egotzeko, honako arauak beteko dira legezko mugen barruan:

- a) Lehenik, borondatezko erreserba funtsei egotziko zaizkie.
- b) Bigarrenik, erabilgarri dauden eguneraketa funtsei egotziko zaizkie.
- c) Hirugarrenik, Nahitaezko Erreserba Funtsei egotziko zaizkie legeriak baimendutako gehieneko mugen barruan.
- d) Egotzeko egon daitezkeen gainerako galerak bazkideen artean banatuko dira.

V. KAPITULUA. ENPRESAREN LIBURUAK

51. ARTIKULUA. DOKUMENTAZIO SOZIALA

BAT.- Kooperatibak honako liburuak izango ditu:

- a) Bazkideen erregistro liburua.
- b) Kapital Sozialari egindako Ekarkinen Erregistro Liburua.
- c) Batzar Nagusiaren, Artezkaritza Kontseiluaren eta Zaintza Batzordearen Akta Liburua.
- d) Kontabilitate Liburuak; horien artean Inbentario eta Balantzeenak beharrezkoak izango dira, bai eta egunkaria ere.

Horiek guztiak Kooperatiben Erregistroan inskribatu eta legeztatuko dira.

BI.- Idazpenak eta oharrak prozedura mekanizatuen bidez edo egokiak diren beste prozedura batzuen bidez egingo dira. Nolanahi ere, prozedura horrek bermatuko du nahitaezko liburuen baliokidea egiteko posibilitatea, bai eta bidezko legeztatpena egitea ere.

HIRU.- Kooperatibak liburuak, korrespondentzia, agiriak eta ordainagiriak gordeko ditu gutxienez sei urtez, betiere horri buruz xedapen orokor edo bereziek ezar dezaketenari kalterik egin gabe.

52. ARTIKULUA. KONTABILITATEA

Kooperatibak bere kontabilitatea dagokion jarduerari egokituta izango du, partida bikoitzeko sistema bidez, Merkataritzako Kodean eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

53. ARTIKULUA. KONTU IKUSKAPENAK

BAT.- Kooperatibak kanpo ikuskaritza egingo die urteko kontuei eta kudeaketa txostenari, nahitaezkoa denean edo 4/1993 Legearen 72. artikuluan zehaztutako kasuetan.

BI.- Ikuskariak Batzar Nagusiak izendatuko ditu eta, hark ezin badu, Artezkaritza Kontseiluak. Kasu horretan, izendapenaren berri emango du egiten duten hurrengo Batzar Nagusian.

VI. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

54. ARTIKULUA. DESEGITEA

BAT.- Hauek kooperatiba desegiteko arrazoiak dira:

- a) Xede soziala amaitu izana, xede hori lortzeko ezintasuna edo organo sozialen funtzionamendua gelditu izana.
- b) Organo sozialak geldirik edo lanik gabe egotea, edo arrazoi justifikaturik gabe jarduera kooperatiboa etetea, bi kasuetan, bi urtez jarraian.
- c) Bazkide kopurua murriztea, legeak kooperatiba bat eratzeko ezartzen duen gutxienezko behera (hamabi hilabete baino gehiago egoera horretan egonik).
- d) Kapital soziala estatutu hauetan ezarritako gutxienezko kapital soziala baino gutxiagokoa izatea hamabi hilabete baino gehiagoko epean.
- e) Fusionatzea edo bereiztea, Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 76. artikulutik 84. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera.
- f) Likidazio fasea irekitzea, betiere konkurtso prozeduraren markoa judizialki adierazita auto bidez.
- g) Horretarako berriaz deitutako Batzar Nagusiak hala erabakita. Batzarra deitzeaz batera, bazkide bakoitzari desegiteko proposamena bidaliko zaio arrazoituta, eta horri batzarra egin baino 30 egun lehenagoko epearen barruan itxitako balantzea erantsiko zaio.

h) Legeak ezarritako beste edozein arrazoi.

BI.- Kooperatiba desegiteko erabakiak gehiengo arruntak hartuko ditu, e) eta g) kasuetan izan ezik, azken bi horietan bi herenen gehiengoa beharko baita.

Arrazoi horietako edozein gertatzen denean, administratzaileek Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du bi hilabeteko epean; Zaintza Batzordeak edo edozein bazkidek egin ahalko diete administratzaileei deialdia egiteko eskaera.

Desegite akordioa edo hori aitortzen duen ebazpen judiziala Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko hedapen handiko egunkari batean argitaratu beharko da.

55. ARTIKULUA. LIKIDAZIOA

BAT.- Bat egin edo zatitzen denean izan ezik, kooperatiba desegin ondoren, hiru bazkide likidatzaile izendatuko ditu desegitea erabaki duen Batzar Nagusiak edo, bestela, horretarako deitu beharreko Batzar Nagusiak.

Likidatzaileen izendapena Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da.

Desegin denetik bi hilabete igarota likidatzaileak izendatu gabe, administratzaileek lehen auzialdiko epaileari eskatu beharko diote likidatzaileak izendatzeko; likidatzaileok kooperatibaren bazkidearen izaera ez duten pertsonak izan ahalko dira.

Likidatzaileek modu kolegiatuan jardungo dute eta haien erabakiak akta liburu batean jasoko dira.

BI.- Likidatzaileek ahalmenak izango dituzte likidazioa aurrera eramateko behar beste eragiketa egiteko eta kooperatibaren ordezkaritza izango dute judizioan eta handik kanpo, betiere sozietatea hirugarrenen aurrean behartuz administratzaileentzat ezarritako baldintza berberetan. Honakoak egingo dituzte:

- a) Azkeneko balantzea egingo dute, argi eta garbi adieraziz zeintzuk diren kooperatibaren sozietate edo ondare hartzekoaren zenbatekoa eta osaera, bai eta banaketa proiektua ere, eta horiek Batzar Nagusiaren onarpenaren pean jarriko dituzte.
- b) Indarreko legeriak ematen dizkien gainerako eskumenak.

56. ARTIKULUA. ARBITRAJEA

Kooperatibaren eta bazkideen artean edo kooperatibako bazkideen artean edo

kooperatiben artean sortzen diren auzizko gaiak Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren arbitrajearen pean jarriko dira nahitaez, behin kontziliazio bideak amaitu ondoren.

57. ARTIKULUA. ABOKATU AHOALKULARIA

Kooperatiba beharturik dagoenean urte kontuak kanpo ikuskaritzaren pean jartzera, abokatu aholkularia izendatu beharko du, Artezkaritza Kontseiluak hala erabakita.

Kooperatibaren eta abokatu aholkulariaren arteko harremana zerbitzuen errentamendu erakoa (profesional liberal gisa), lan kontratu bidezkoa edo sozietarioa izan daiteke (bazkide langile edo kooperatibako langile gisa).